

## **Meridianoa eta paraleloa**

Agiririk gabekoa nauzu. Inongo naziok ez du aitortzen nire jaiolekua, ez nau inork bere eremukotzat aintzatesten. Ez dut erresumarik atzean, ez erre-erreginarik, ez lehen ministro edo sailbururik, ez lehendakaririk, ez gortetik... ez ni babestuko nauenik haien koordenatuetan jaioa naizelako -meridiano eta paralelo berdina izatea jaioleku, zer gauza handia den-. Ezin dezaket inor erkide izendatu, jaiotzen nintzen herrixka berekoak ezik, agiri gabe bainauzu argiak lehendabizikoz begiak urratu zizkidan egunetik. Gurasoek maitekero zaindu ninduten haien ahalegin betean, baina ez zuten inoiz agirien beharrik izan. Ingurukoek ezagutzen zituzten eta haiek ingurukoak eta nahikoa zuten hori bata bestea nor zen aitortzeko.

Hasperen dagit, sakon eta luze. Gazteak baleki eta zaharrak baleuka. Hau ikasi nuen bart eta hori dut buruan zurrumbilo betean. Ezjakintasuna eta miseria bat datoz askotan, nire kasuan hala izan da. Ez nekien ezer, eta orain dakidanak ez dit ezertarako balio hemen, meridiano eta paralelo honetan. Zubiak behar ditut nik dakidan apurra eta hemengoa lotzeko eta ez da batere erreza izaten ari integrazioarako bide hau zeharkatzeko zubiak aurkitzea.

Herrixkatik alde egin nuen, guda etorri zitzaigulako gainera gaztea nintzela. Gurasoak, senideak, etxea eta ezagun zitzaidan apurra atzean utzi nuen. Oinez egiteari ekin nion ihesean, eta oinez jarraitu nion bideari ihes gorrian, beti ihes, ez nuelako nor nintzen esango zuen agiririk inon errotzeko, ez patrikan dirurik, eta hori gutxi ez balitz, nindoan lekura nindoala izua ikusten nuelako hurkoaren begietan. Ni beti arrotz, beti kanpotar nintzen, beti izu eragile -neronek eragin gabe- nonahi. Hobe izaten nuen herrietan denbora gutxi eman eta hurrengo geralekura alde egin, ihes.

Ez nuen beti ikusezin eran ihes egitea lortu, saiatuagatik, zoritxarrez. Esklabo izan nauzue, kale kantoian eskale, goseagatik sabela-minez lapur, egarriak hilzorian, doilorkeriaz kateatuta, zigortua eta jipoitua. Abortatu, haur bat galdu, zeruan dut aingeru bat zain. Eta halere, beti lortu dut bizirik atera eta ihes egitea. Hobe esanda, irautea, bizi irautea, hori da benetan lortu dudana. Agiriak banitu, urratsak egin izango nituzkeen nonbait, errotu agian. Jakin, ez dakit, ordea.

Ez dut geroa edo etorkizunik izan orain arte, txikitan gurasoekin ezik. Eta orain etorkizun hobearekin amesteari ekin diodan honetan, hamaika deabru, eta beste hainbat ezin eta oztopo ari zaizkit lurreko hautsetara lotzen, bertatik jaso nintekeen garaian. Korapilo begian nago, amaraunean, anabasa betean, ezin aska.

Paperezko itsasontzirik egin duzue inoiz? Nik, erruz. Amestera narama. Eta kontua da pertsona asko etorri dela eta beste asko datorkeela paperezkoak diruditen itsasontzi malapartatu eta kraskatuetan hona; egurrezkoak badira ere, popatik brankara arrailduak izan ohi dira asko. Edota koltxoneten antzera birika hutsez puztu dituztela diruditen potinetan. Ez zen nire esperientzia izan, nolana ere. Ni merkataritza itsasontzi batean polizoi etorri nintzen, ondoezik, estu zein ikaraz, bai, baina itsasoan urperatzeko ez nuen arriskurik ezta amesgaiztorik izan behintzat.

Irudikatu duzun paperezko txalupa 180 gradutan biratuko bazenu zer bilakatuko litzateke? Hori da, ondo dakizu, paperezko kapelan. Eta hori behar dut nik: nor naizen zuritu eta justifikatuko duten paperak edo agiriak, buru gainean, kapela moduan: hots, beti gainean. Gogora dezadan esaera zaharra: txapela buruan eta ibili munduan. Eta niretzat, txapela, bertakotze agiria litzateke. Kontu egizue nire burua aurkezteko ezinbestekoak ditudala agiriok. Ze zuen mutur aurrean hezur haragitan ikusiagatik, ez nauzue aditzen, ez zarete gai nire izena zein den ere galdetzeko eta ulertzen dut. Erne gero, bai? Ulertzen baitut egoera! Zital, maltzur, gizatxar lagun oldeak etorri badatozelako: gaizkileak, min

egitera edo lapurtzera eta daukazuen apurra erauztera datozenak. Bai, gizagaixo larrupean, horrelakoak ere badatoz. Zoritxarrez. Niretzako zoritxarrez -asmo onez, zintzo eta benetako behar gorriak bultzatuta gatozen guztiontzako zorigaitzez-.

Nik burua dut lepo gainean, ez, hargatik, agiri paperik buru gainean, ai ezer banu! Biraka dabilen errota besterik ez naiz une honetan, ezer banaiz. Leku berean, arazo berdinei aurre egiten, ezin bizitzan aurrera egin. Jira eta bira, toki berberean beti, mingostasun eta arantza tartean txertatua: agiri eza, etxe eza, lan egiteko baimenik ez, hizkuntza maila hobetu beharra, jana eta arropak eskasian, nire buruaren garbiketa kaskarra, dena dut eza edo ezina. Tarteka itolarri tankeran urpean murgilduta nagoela sentitzen dut, ezin atera; marteka ur gainean arnasa hartzen sumatzen dut nire burua, sikiera bizirauten eta zubirik ikusten ote dudan zorrotz begira nagoen lekutik integrazio bidera joateko. Eta bitartean, euskaraz ikasi nahian zuen artean egokitzeko. Zer edo zer badakit, ahoz moldatzea lortu dut saiatuaren saiatuaz, baina idazten, tutik ez. Ikasi nahiko nuke, eta hortxe amaigabea dirudien nire jirabiretako bat, ziba banintz bezala, errota zoroan kateatua: ezin baitezaket euskara ikasteko matrikula ordaindu. Dirurik ez dagoenean ezin sortu!

Nahi eta ezina.

Hezur haragizko norbait izanik ere, holograma naiz lege-aurrean agiririk gabe. Euskalduna naiz, euskara dut hitzetan, eta jitoan nabil, euskaltegietan euskara areago ikasteko ezinezko nahian.

Onartu behar dizuet halere, hemen ia ikararik gabe bizi naizela, gudarik gabe, kalean lasai -begiradak begirada- nahiz eta miserian bizi. Behintzat, aske naiz eta ez naiz ihesean ibili behar: hori amaitu zen.

Hemen egin dudan ezagun-lagun bat, amona xahartxo bat, ari zait euskara irakasten eta berak azaltzen dit gizarteko hainbat gauza ere. Nik dakardan kultura eta

hemengo gizartearen zubi-lana egiten du nirekin. Frantsesez ondo dakigu biok, berak nik baino hobeto. Astean hirutan dator laguntza jasotzen dudan elkartera eta euskaraz irakasten dit, hiru ordu orotara. Asko ari naiz saiatzen. Ilunabarretan dator, orduan amaitzen baitut nire hezkuntza eta praktikaldia. Etxe batean ari naiz etxeko lanetan. Laster lortuko dut etxeko garbitzaile diploma, baina ezingo didate eman, ez baitut nor naizen agertzen duen agiririk: buru edo soin gainean ez dut paperik. Ez etsitzeko dioska Mirarik, dena etorriko dela. Egoskorra izateko eta ditudan aukerez probesteko. Eta berak animatu nau lehiaketa honetara. Nik idazteko ahalegina egin dut, berak ondu dit idazlana.

Ezer ez dakidala esaten diodanean hatza jartzen dit maitekiro ezpainetan nire aingeru-zaindaria den andere honek: “ez esan ezer dakizunik, oinez ibiltzen ongi dakizu, frantsesez ere bai eta zure burua hemengo askok berea sekula ezagutuko duen baino hobeto ezagutzen duzu; hori altxor bat da, adore iturria”. “Jainko errukitsua!” -diot nik- “eskuzabal zakizkio Mirariri”.

“Denek merezi dugu bizitzea” eransten du eta isilunea egin ohi du, “duintasunez bizitzea esan nahi baitut”. Begiek dir-dir egiten diote hori dioenean, Mirarik goitik behera sinesten du dioena. “Agiriak lortuko dituzu eta euskaraz ikastea ere bai. Jainkoak lagunduko digu. Zuk lanean segizu”. Fedeak batzen gaitu. “Fedea Jainkoagan eta fedea euskal gizartean” erantzuten diot. “Hala bedi” dio irribarre amultsuz. Une honetan denetarik behar baitut.

“Zer, aurkeztuko al dut lehiaketan?” galdetu diot.

“Bai, indar handiko kontakizuna da, erronka duzu aurrean”.

Eta hala idatzi dut ene orain arteko bizitzaren alde gogorra eta iluna eta orain

u  
r  
r  
a  
t  
z